


**EUSKARAK:
ETORKIZUN HILEZKORRA?**

Begiradatxo bat bota ezkerre euskeraren gaur eguneko eta aintzinako hedadura geografikoari, berehala konturatzen gara euskerak sufrin dauan atzerakada ikaragarriaz. I. mendean adibidez, Iparralde-rantz Garonne ibairaino hedaturik egoan euskerea, Akitaniako lurraldean barrena; Ekialderantz, toponimiak frogatzen dauanez, Kataluniaraino; mendebalderantz, Kantabriako Samano haranean eban mugea, XIX, mendean Nafarroan atzerakadarik handiena gertatu zan. XX. mendean hasieran oster, Hegoaldean Bizkaia eta Gipuzkoako mugetaraino murriztu zan.







Datu guzti hoiek kontutan hartuta, edonor ikaratu daitehe, batez be gu geu, euskaldunok.

Euskera hizkuntzaren jabea dana euskalduna da. Hauxe litzateke hitzaren esanahia. Baina geure burua euskalduntzat daukagunok betetzen ete dogu berba honek benetan adierazten dauana? EZ. Gaur egun bertan jaio dan edonor euskalduna da, gazteleraz hitz egin arren. Euskalerrrian eta bertoko giroan ondo moldatu dana, euskalduna da, nahiz eta euskeraz jakin ez. Izen euskalduna daukana, zenbat eta arrarogoa izan, zer esanik ez itxulpenik ez badauka!, euskalduna da, euskerea bere izenean bakarrik onartzen badau ere. Ez dakit zenbat abizen euskaldun jator-jatorrak daukazanak ere, euskalduna da, euskeraz hitz bi jarraieran botateko gauza ez izanagaitik ere. Umeak, euskerea indartu egin behar dan atzakiaz, ikastolara edo «D» ereduko eskolara bialtzen dabezan gurasoak, euskaldunak dira, erdera

ederrean diharduela ere. Lana bilatzeko euskerazko agiriak ataratzen saiatzen diranak, euskaldunak dira. Lagun artean, euskeraz ondo jakinda ere, erderean baino ez darabilenak, euskaldunak dira...

Hemendik ataratzen dodan ondorio bakarra, hauxe da: Gaur egungo Euskalerrian dagoen eta gauzarik errezenetarikoa, errezena ez bada, euskalduna izatea da!!!. Harrigarria benetan. Geure identitatea galtzen ete gagoz? Burura jotort OSKORRI taldearen abesti baten letra: «Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?». Sarritan entzuniko berbak eta doinua izanik






ere, mesu indartsua eukinda ere, eta gure artean maiz abestuta ere, hitzetan eta soinu alaitsuan soilik gelditu ete jaku?.

Dana dala, badago oraindik jendea baita taldeak ere, ahalegin handiak egiten dabezanak, euskerea aurrera atara, zabaldu eta berbizteko.

Bide ugari dago euskerea indartzeko: etxe giroan batez be, eskolan, komunikabideetan... baina hementxe azpimarratu gura neukez gazetxoen mailan antolatutako euskerazko literatur lehiaketak: Irakaskuntza Ertainetako Urruzuno literatur lehiaketa, Durangoko Astarloa kultur taldeak antolatutakoa edota Bizkai Idazle Elkartearena...

Badakigu gitxi irakurtzen dala eta gazteen artean oso arraroa dala batan bat egotea bere kabuz zeozer irakurtzeko eta idazteko.

Literatura sari batera edozein idazlan aurkezteko, lehenengotan adore falta handia agertzen dabe, behar bada, holako lan motak zailak eta goi mailako jendearentzat bideratuta dagozalakoan. Baina zein gaztek ez dau nahi protagonismo pixka bat lortu eta nagusien joko bardinean jolastu, bere gaitasun eta trebetasunak neurtzeko eta gainera, sortea euki ezkerro, saria jasotzeko itzaropenez? Irakasleak edo arduradunen bat zirikatu ezketino, atoan aldatzen dabe eritziz, eta euren harrotasuna ez da makala izaten esku artean lana amaituta daukenean!! Garrantzitsuena zelan edo holan euskerarenganako zaletasuna sortzea eta mantentzea da! Eta oraindik, eskerrak, odolak tiratan gaitu!



Gure helburua lortzeko, hau da, euskaldun hitzaren benetako esanahia ekintzetan zabaltzea, honelako pausoakaz oraindik denporez gagoz euskerea aurrera ataratzeko, baina gure gazteengan dago euskeraren etorkizun hilezkor honen aria apurtzeko posibilitate bakarra.

Itziar Mena



ESTUDIO
FOTOGRAFICO

ARGALKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



San Miguel kalean, 14
Urrut: 673 0509
48340 Amorebieta

Trañabarren, 13 Bloque 1-4
Urrut: 681 1009
48220 Matiena (Abadiano)

JUAN MANUEL SASUATEGI

AVISA: 444 3500 - Abonado 868